

AURKEZPENA

Gure gizartea etengabe aldaketak jasaten doa, eta aldaketa hauek geroz eta arazo gehiago dakartzate gure egunerokotasunera. Bai, berotegi efektuak edota aldaketa klimatikoak dakartzan ondorioak benetan larriak dira, baina begi bistan dauden beste hainbat arazo ere badaude, benetan garrantzitsuak direnak eta nolabait bisibilitatea behar dutenak. Gure gizartean dauden gabeziak aztertu ostean, ondorio batera iritsi gara: ez diogu behar bezalako garrantzia ematen gure osasunari, elikadurari batez ere. Horregatik, gure proiektua gizartea elikadura egoki batez jabetzean datza.

Gu Oihane, Carmen eta Maddi gara eta Urretxu-Zumarraga Ikastolako batxilergoko bigarren mailan gaude. Gure proiektuaren ideia gertuko lagun batetik datorkigu. Hau nutrizio ikasketetan hasi berri da aurten, eta ia denok dugun elikadura desegokiaz jabetu du lagun taldea. Gu oraindik gurasoekin etxean bizi gara, eta tranpa batzuk egin arren, astero jaten dugu gorroto dugun purea edota legatza, baina independizatzen diren gazteak halakoak baztertzeko joera dutela ohartu gara.

Gure helburua gizarteak elikadurari behar beharrezko garrantzia ematea da, honek eragin handia izango baitu norberaren bizitzan gerora begira. Horretarako, proiektu bat planteatu dugu eta honen ezaugarri guztiak azalduko ditugu pausoz pauso. Proiektua guk geuk prestatutako tuper batzuetan oinarrituko da, non hango jakiak goitik behera neurtuak egongo diren eta bertako produktuak sustatuko dituen. Tuper osasungarri haiek gure web orrialdean harpidetzean jasoko dira, asteko egun bakoitzeko bat.

Eskerrak eman behar dizkiegu proiektu hau aurrera eramaten lagundu diguten bai erakundeei eta baita irakasleei ere.

